



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 6



ZAPATILAK SOINEAN EUSKARA MINGAINEAN

121 gazte euskaldunek parte hartu dute EuskarAbentura egitasmoan. Horien artean izan dira eskualdeko lau. / 3

EUSKARABENTURA

UDAKO OPORRALDIA

Abuztuarekin batera iraila arte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Irailaren 5ean hartuko duzue hurrengo **TTIPI-TTAPA!**

Uda
ona
pasa!

Arantza Rock
jaialdiaren 24.
edizioa abuztuaren
24an / 7



ZOZKETA / 32



TELEFONO GIDA

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK



INFORMAZIO PANELAK

Egurrezko egiturarekin edo gabe

Ezaugarriak:

Galdetu neurri eta materialen aukerak

ROLL-UP



ROLL-UP

Garraio poltsarekin

Ezaugarriak:

Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

**AZIDOAK, ELEKTROSTATIKOAK,
GARDENAK, MIKROBENTOSAK,
MIKROPERFORATUAK,
POLIMERIKOAK**



ALUMINIOA

Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan



PVC

Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan



METAKRILATO

Gardenak eta opakuak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

GAUZA GEHIAGO

OLANAK



PEGATINAK



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:

Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



Ezkerretik eskuinera, Aritz Zulaika, Maëlle Aguerre, Kattalin Berasain eta Oiherr Urrutia. EUSKARABENTURA

Hizkuntza-ohituretan eragiteko EuskarAbentura

121 gazte euskaldunek hizkuntzaren normalizaziorako urratsak eman dituzte uztailan. Horien artean izan dira eskualdekoak diren Zulaika, Berasain, Aguerre eta Urrutia. Iparra galdu gabe, hartutako ohiturari «eusteko eta inguruko erabilera indartzeko» lanean segiko dute

N. BAZTERRIKA

Ezagutzatik erabilerarako bidea egin dute uztailan Euskal Herriko eta diasporako 121 gazte euskaltzalek. Zapatilak soinean eta euskara mingainean, EuskarAbenturan ibili diren lau eskualdekoak dira: Aritz Zulaika (Doneztebe), Kattalin Berasain (Bera), Maëlle Aguerre (Senpere) eta Oiherr Urrutia (Erratzu).

Izioqui dugu lelopean, Mauletik Getxora 783 kilometroko ibilbidea osatu dute, horietatik 483 oinez egin dituztelarik. Donejakue bidea jarraituz, hiriburuetan ez ezik, Unescok Gizateriaren Ondare izendatutako museo, eraikin, gaztetu, monumentu, hondartza, leze, soro, baso zein herrietan izan dira; eta tailerrez, mintegiez, ikuskizunez, solasaldiez... gozatzeko aukera izan dute.

Hazia erein, uztia jaso

EuskarAbentura «2015ean, Boiseko Jaialdian, bat egin zuten Euskal Herriko zenbait gaztek» sortutako egitasmoa da. Kide horiei «Quetzal ibilbidea zeritzonaren euskal aldaera bat sortzea» gogoratu zitzaion. Hitzetik egiterako bidean buru-belarri aritu ziren lanean: «lan-taldea osatu eta helburuak zehaztu genituen». Ondotik, babesa emateko erakunde, enpresa edota elkarteen bila jo zuten. Aitzinera ateratzeko modurik izanen zuten edo ez jakin gabe «proiektua

egituratzeko» gogotik lan egin zuten. Pixkanaka, «lo egiteko tokiak, otorduak, ekintzak, jarduera eta materiala» lortu zituzten eta joan den urtean martxan paratu zuten.

Arrakasta ikusirik, aurten abenturaren bigarren edizioa izan dute. Joan den urteko ibilbidea errepikatu dute, baina eskari gehiago izan direnez, lagun gehiago eraman dituzte: «iaz 150 inguruk eman zuten izena eta 110 hautatu genituen; aurten 260 bat lagun apuntatu dira eta 121 aukeratu ditugu».

«BIZITZAN BEHIN BIZI DAITEKEEN ESPERIENTZIA AHAZTEZINA DA»

«BEHARREZKOAK DIREN BALOREAK ERE LANTZEN DITUGU»

Hautaketa-prozesua egiteko, gazteek Euskal Herriko bazterrei, migrazio-mugimenduei edo errima eta erritmoei buruzko lan bat egin behar izan dute. Lanak «historikoak, literarioak, ikus-entzunezkoak, musikalak, plastikoak...» izan dira eta horiek Eusko Ikaskuntzako kideei eta PuntuEUS atariari helarazi dizkiete. Adierazi dutenez, jaso dituzten lanekin «harrituta» gelditu dira.

Aukera «bakarra»

Parte-hartzaileak erabakitze-ko irizpideak «lanak, neska-mutilen oreka eta zazpi lurraldeetako parte-hartzaileak bermatzea» izan dira: «askotariko errealitate linguistikoa eta sozialak nahasi nahi izan ditugu». Horrela, proiektuaren helburuak lantzeko bide izan dute. Bertzeak bertze, «gazteen artean euskara sustatu eta normalizatzeko eta gazte euskaldunen sarea sortu eta elikatze» aritu dira lanean. Eta horrekin batera, «Euskal Herriko ondasun naturalak, historikoak eta kulturalak ezagutarazteko; eta zenbait balore jorratzeko» aukera baliatu dute. Azken horien artean «parekidetasuna, bizikidetasuna, ardura eta autonomia, bizi-ohitura osasungarriak, ingurumenarekiko begirunea eta turismo eredu jasangarria» izan dira aipatu dituztenak.


Sustatzaileek «16-17 urteko gazteak, pertsonalitatea gartzten ari diren momentuan» esperientzia bizitzea «abergarria» dela nabarmendu dute. Haien hitzetan, «adin bereko jendearekin Euskal Herria ezagutzeko, lagunak egiteko, ezaguna den jendeaz ikasteko eta, batez ere, hizkuntza-ohiturak kontzienteki erabakitzeko, bizitzan behin bizi daitekeen esperientzia ahaztezina da EuskarAbentura». Parte-hartzaileek zapatilak erantzi eta euskara jantzi dute. Antolatzaileek datozen urteetan horri eusteko eta haria ez eteteko lanean segituko dute.

«Euskal Herriko toki eta jende anitz ezagutu dugu»

ARITZ ZULAICA IRIGOIEN DONEZTEBARRA

Bultzada guztiak ez dira erortzeko, esperientzia guztiak dira ikasteko. Ederki daki hori Aritz Zulaikak. Izebak eman zion EuskarAbentura espedizioaren berri eta amak bultzatu zuen parte hartzera. Hasieran, espedizioak «interes berezirik» eragin ez bazion ere, informazio gehiago izan ahala, «ideia gustatu eta lanean hasi» zen: «nondik nora jo aukeratzea izan zen zailena». Ibili eta buelta, errimak eta erritmoak gaiari lotuta, «sormen digitaleko lan bat» aurkeztu zuen: «euskal musikari garrantzitsuei buruz galdera-joko bat egin nahi nuen, baina emakumeak gutti izaki, horiengan jarri nuen fokua. Informazioa bilatu eta Genially web orrialdearen bidez egin nuen lana». Onartu eta baztertuen zerrendak atera aitzineko egunak «arras trankil» pasatu zituen: «ez

nindutela hartuko pentsatzen nuen. Izugarritzko sorpresa izan zen!». Ikasteko eta gozatzeko gogoz egin zuen motxila «eta, bide batez, euskara eutsi eta indartzeko lagun-garri izanen den bidaia izateko» asmoz. Abenturaren helburuak gogoan zituen eta tarteka lagunartean gazte-leraz egiteko duten ohitura iraultzeko asmoz joan zen: «hilabetez euskaraz soilik hitz eginez bizitzea erabilera sendotzeko baliagarri izatea espero dut».



«PARTAIDEOK EZAUGARRI KOMUNAK DITUGU ETA HORI HAGITZ LAGUNGARRIA DA»

Bizipenez «gainezka»

Motxila beteta eraman zuen eta gainezka ekarri du. Kontatu digunez, hasieran «erdi galduta eta urduri» ibili zen, baina «segidan» egokitu zen.

Fisikoki ere «lehendabiziko egunak» izan ziren «zailenak» baina gorputza «berehala» ohitu zitzaion. Hilabetez hainbat gai landu zituzten: «errate baterako, eraikitzen ditugun estereotipoen hausnartzeko, eta ezagun aunitzen hitzaldiak aditzeko aukera izan genuen: Ruben Santxex bertsolariarekin, Alex Txikon mendizalearekin... egon ginen». Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeaz gainera, «euskaldun anitz ezagutu ditugu». Hori guztia gogoan amaren bultzaldia eskertzekoa izan zen. Bere aldetik, zalantzan daudenei animatzeko erranen lieke: «beldurra eman dezakeen arren, hemen elkartzeko garen guztiok egoera berean gaudela pentsatu behar da. Guztiok gara euskaldun, guztiok gauza berera gatoz. Helburu eta ezaugarri amankomunak izateak gauzak errazten ditu. Beraz, interes izpi bat aski da merezi izateko, gainerakoek ere beraien alea jarriko baitute». Hitzetan sumatzen zaio ilusioa, eta behin eta berriz berretsi du: «sekulako esperientzia izan da».

«Uda hoberenatariko bat izan da»

KATTALIN BERASAIN GOIA BERATARRA

«Aitzineko urtetako argazkiak ikusita» eta parte hartzeko «azken aukera» zuela jakinik, EuskarAbentura izena ematea erabaki zuen Kattalin Berasainek. Erabaki bezala lanean hasi zen: «arte mundua gustuko dudanez, hasiera-hasieratik sormen lan bat eginen nuela erabaki nuen». Etorkin ezagun baten bizitza izan zuen ardatz, eta hori «komiki bidez» ekarri zuen paperera. Xehetasunei galbiderako tarterik ez uzteko, eta «historian gehiago sakontzeko», komikiaren osagarri, idazlan bat ere egin zuen eta horrekin guztiarekin batera, motibazio gutun batean «gogo eta asmoak» azaleratu zituen. Lan mardula egin zuen, baina onartua izatean hori guztia ahantzi zitzaion: «izugarritzko ilusioa egin zidan». Dena ez zen, ordea, espero bezala

atera eta horrek sentimendu gazi-gozoak eragin zizkion: «lagun bat abenturatik kanpo gelditu zen eta tristura sentitu nuen». Ezagunik gabe eta ezezaguna zitzaion esperientzia abiatzeko momentua «urduritasunez» bizi izan zuen, baina harat ailegatu orduko guztia ahantzi zuen.



Aspertzeko tarterik gabe

«Gogotsu» abiatu zuen bidea: «hasieran nora jo ez jakitea, ingurua eta ingurukoak arrotzak izatea izan zen zailena». Ez da harritzekoa, etxetik kanpo aurtien pasatu baitu lehendabizikoz hilabete oso bat: «Euskal Herria oinez zeharkatu eta dinamika, ekintza edo jolasen gozatu dugu». Ibiliaren ibiliz hankak

«GUK PRESTATU, ANTOLATU ETA GARBITU DUGU. DENA EZ DA ETXEAN BEZAIN ERRAZA...»

babez josiak izan zituen beratar gazteak: «egunero kilometro anitz egiten genituen, hiru taldeetan: trikuak, kattagorriak eta erbiak. Gu erbien taldean ginen eta agudo samar ibili behar izaten genuen. Baina kirola gustuko izan eta urtean zehar zerbait egiten dutenek aise egin dezakete». Berak, bere aldetik, ez luke deus aldatuko: «guztia ahantzi, eza-gutzak aberastu eta tokiak bisitatzeko aukera ederra da». Hilabete horrek emandako momentuak gogoan, bizi duen «uda hoberenatarikoa» izan dela erran digu: «ez dut aspertzeko tarterik izan, ez naiz zer egin jakin gabe egon, momentu jendek inguratuta egon naiz... zoragarria izan da». Etxekoan laguntza eskertzen ere lagundu dio eta «dena ez da etxean bezain erraza» oharu da: «guk prestatu, garbitu, antolatu... behar izan dugu dena eta aunitz ikasi dugu». Orain EuskarAbenturaren bigarren zatia egiteko prest dago: «lagunak egin ditugu eta horri eusteko herriko bestetan, udako egunen batean... biltzeko asmoa dugu».

«Etxean euskaraz mintzatzen saiatuko naiz»

MAËLLE AGERRE SENPERTARRA

Gogoetak sendimenduen pizgarri, sendimenduak xedeen sustagarri errana aski ongi lotzen zaio Maëlle Aguerrek bizitako esperientziari. Joan den urtean hilabete luzeegi zela pentsatuz ez zuen izenik eman: «beldur nintzen baina berriz interesgarria atzeman eta pentsatu ondotik aurtan animatu naiz». Kezka guztiei helburuak jarrita, ekin zuen bidea: «euskara hobetzeko eta usaia bizitza alde batera uzteko erronka jarri nion neure buruari». Bi helburuei tarte egiteko aukera izan du, baina ezin erran ez etxekoak ezta egunerokoa ere zeharo atzendu dituenik, bizitakoak oroitzen eragin baitizkio: «ttikia nintzelarik bezala, euskaraz mintzatu naiz denekin eta EuskarAbenturan hori berrartzeko aukera izan dut». Gogoan du bere hizkuntza-ohituetan aldaketa «ikastolatik kolegiara» jo zuenean gertatu zela: «orduak nire familiarekin ere frantsesez mintzatzen hasi nintzen». Eta aldaketak aldaketa, amatekin euskaraz aritzeko aukerari eutsi dio: «berarekin batzuetan euskaraz mintzatzen naiz». Amate eta birramate izan dira abenturan parte hartzeko giltzak, batarik esker euskaraz mintzatzen segitu duelako eta bertzeak proiektuan sartzeko lana egiteko bide eman diolako: «birramatearen historia kontatuz migrazioari buruzko lan historikoa egin nuen. Leitzatik Senperera emigratu zuela kontatzearekin ez nuen aski sei orriko lana egiteko eta gaiari lotutako



«EGUNEZ EGUN EUSKARA HOBETU DUDALA ATZEMAN DUT. ARRUNT KONTENT NAIZ»

bertso bat sortu eta kantatzea erabaki nuen». Bere kasuan lana egitea «ez zen biziki zaila» izan, baina abenturan sartuta, egunerokora egokitzea kosta zitzaion: «fisikoki hasiera gogorra izateaz gain, bai jendeak ni baita nik haiek errandakoa ulertzeko zailtasunak izan genituen». Egunez egun «gogor» saiatuta, hori lantzeko ariketak eginda, «euskaraz hobe ulertzen eta solas egiten» zuela ohartu zen eta pixkanaka, gauzak erraztu zitzaizkion. Hortaz, «hizkuntza hobetu nahi dutenei» parte hartzeko erranen lieke.

Etxean euskara berrartzeko saiakera

Zailtasunik handiena orain datorkio, hilabetea pasatu delarik. «Uztartitzeko lizeotik bertze batera joanen naiz eta hor gutti dira euskaraz mintzo direnak». Fokua, beraz, etxean jarriko du: «ahizpa eta amarekin euskaraz mintzatzen saiatuko naiz». Ea piztutako grina eta egindako ahalegina baden hori lortzeko adina!

«Ardurak hartzen eta harremantzen ikasi dut»

OIHER URRUTIA BALLARENA ERRATZUARRA

«Egunerokoa» euskaraz mintzatzen denez gero, «esperientzia bizitzeko, Euskal Herriko txokoak eta jendea eza-gutzeko» asmoz eman zuen izena EuskarAbenturan Oiher Urrutiak: «Erratzu euskalduna da eta herrian ez dut bertze hizkuntzarik behar, institutuan ere euskaraz mintzo naiz eta aisialdiko jarduerak euskaraz egiten ditut». Argi du euskara behar duela, argi euskarak euskaldunak behar dituela: «behar den bezala, ahal dudana guztietan euskaraz aritzen naiz». Segur aski, hizkuntza-ohiturak aldatzeko, kontzientzia pizteko eta eredu izateko, EuskarAbenturan pieza garrantzitsua izan da Urrutia: «niretako zentzu horretan abentura hau oinarritzkoa izan ez den bezala, eremu ez euskalduneko herritarrendako aukera ona dela uste dut».



«BATZUEN ZAILTASUNA IKUSITA EUSKARA LEHEN HIZKUNTZA IZATEA ESKERTZEKO DA»

Dena dela, ikasteko aukera izan du eta «euskara lehen-dabiziko hizkuntza izatea gehiago eskertzen dut orain». Maila sozialean ere garatzeko bide eman dio: «orain artean ez dut lagunak bat-batean egiteko beharrik sentitu eta ez ditut horrenbertze euskalki aditu». Beharra izan du lege: «integratzeko eta komunikatzeko modu bakarra pausoa ematea izan da, solas egitea eta abenturan murgiltzea». Hilabetea jendez inguratua baina, era berean, bere buruaren jabe izanez pasatzeak «ardurak hartzen» ere erakutsi dio eta hori «beharrezkoa» da: «fiteago edo beranduago norberak bere bizia egiten ikasi behar du eta...».

Dinamikoa eta aberatsa

«Hagitz gustura» pasatu du hilabetea. Kontatu digunez, «lehendabiziko bi egunetan lo egitea izan da zailena, hortik aitzinera ohitu bertzerik ez da egin behar». Normalean egunerokoa markatua izan dute: «07:00etan jaiki, motxilak prestatu, oinez ibili eta arratsaldean dinamikak». Paisaia ederrek «Nafarroa hegoaldeaz nuen aurreiritzia deuseztatu» diote eta dinamikak «mendiaz, euskaraz eta kulturaz, herriaz eta inguruaz» ikasteko bide eman diote. Hori guztia ez ezik, gosarirako zein bazkarirako prestaketak «denen artean» egin dituzte. Lagun-talde polita egin dute eta elkarrekin horrenbertze denbora partekatuz «harreman estua» eraike dute. Harremana estutu ahala «mugikorra itzali eta bertan bizitakoa gozatzeko» baliatu duen bezala, harremana mantentzeko berriz ere piztuko du: «ez da erraza izan, baina ditugun aukerak baliatuz eusten saiatuko gara».

Gasa Ura
Kalefakzioa

froling
Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Tel.: 686 23 52 30
patximutu@hotmail.com
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

ecoforest
markako
pelletezko estufak

PRIMI
ostatu

Ongi pasa bestak!

Goiko karrika, 7 - ARANTZA - T. 948 634 052

Ongi pasa bestak!

A
aterpe

albergea jatetxea ostatu

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

Burlada
ostatu-jatetxea

BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

ongi pasa bestak!

BEREZITASUNAK	MENU BEREZIAK
Haragiak	Taldeak
Arrainak	Mendizaleak
Elxeko Postreak	Jaunartzeak
	Otorduak

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com

ilargi
okindegia

APEZENA

Ongi pasa bestak!

Enkarguak: 948 634 156 - ARANTZA

Arantzako bestak 2019

egitaraua



Abuztuak 14, asteazkena

12:00etan txupinazoa. **Ondotik** txistulariekin eta Izer eta Alabier trikitilari eta panderojolearekin kalejira. **Segidan** herriko dantzari gaztekoen saioa. **14:30ean** herri-bazkaria, Izer eta Alabier trikitilari eta panderojoleak girotuta. **17:00etan** Gorapean: bestetako programaren azal eta kontrazal lehiaketara aurkeztutako marrazkien erakusketa. **17:00etan** haur-errentzako jolasak eta aurpegi margotzea. **20:00etan** Txamukos mariatxi taldearen emanaldia. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia Beñat eta Fernandorekin.



Abuztuak 15, ortzeguna

10:00etan diana herriko txistulariekin. **11:00etan** meza. **Ondotik** Arantzako Dantza Luzea frontoian. **19:00etan** bu-ruhaundi eta erraldoien kalejira, trikitilari eta panderojoleekin. **19:00etan** pilota partidak: Patri Espinar eta Oihana Orbe- gozo-lera Agirre eta Olatz Arrizabalaga; Alberto Ongai eta Jokin Santxez-Iker Salaberria eta Ion Olaizola. **20:00etatik 21:30era** dantzaldia Oharkabe taldeare- kin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00eta- tik aitzinera** dantzaldia Oharkabe tal- dearekin.



Abuztuak 16, ortziralea

10:00etan diana herriko trikitilariekin.
11:30ean haurren herri-lasterketa. Izen-
-ematea: 11:00etan. **12:00etan** luntxa
eta kantu poteoa. **16:00etatik 19:00eta-
ra** puzgarriak frontoian. **19:00etan** ber-
tso-saioa: Aitor Sarriegi, Aitor Mendiluze,
Amaia Agirre eta Oihana Iguaran. Aran-
tzako bertso-eskolako kideek ere abes-
tuko dute. Gai-jartzailea: Patxi Larretxea.
**20:00etatik 21:30era eta 00:00eta-
tik aitzinera** dantzaldia Trikidantzekin.
22:00etan auzoetako afariak.

Abuztuak 17, larunbata

10:00etan diana herriko trikitilariekin.
10:30ean herriko pilota txapelketa-
ko finalak, Ekaitza Elkateak antolatuta.
18:00etan gaztetxoentzako ginkana.
18:30ean herri-kirol saioa: Nafarroako
II. Mailako Aizkora Txapelketako kanpo-
raketa eta Aimar Irigoienen harri-altxatze
erakustaldia. **19:00etan** entzierro ttikia.
20:00etan presoen aldeko triki-poteoa.
**20:00etatik 21:30era eta 00:00etatik
aitzinera** Elizagoien Ahizpak.

Abuztuak 24, larunbata Arantza Rock

Ilunabarrean Elektrozarata elektrotxa-
ranga. **23:00etatik aitzinera** kontzer-
tuak: Goflow, Nikotina, Herdoil eta Ilun-
tzean taldeak. Sarrera: 5 euro.

egitaraua



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANZAR ETA BISITARI GUZTIEI

«Hunkigarria da plaza bete herritar Arantzako Dantza Luzea dantzatzan ikustea»

Aintzane ITURRIA Arantzarra

Herrian egiten du bizia eta bizia ematen dio herriak. Bistakoa da hori Aintzane Iturria Iparragirreraren (Arantza, 1985) kasuan. Sustraiak ongi errotuak ditu sorterrian, badaki zer den herrigintza, badaki zer den auzolana, eta gustuko du herriko ekintzetan parte hartzea. Atsegin du bere lanbidea ere. Irakaslea da ofizioz, eta ikasturtea «hagitz ongi» joan zela eta «ustekabeen udako oporrak» ailegatu zitzaizkion arren, gustura dabil egun libreez gozatzan, «semeekin lasai egoteko» aprobetxatzan.



Aspertzeko astirik gabe

Ate-joka diren herriko bestetan ez du etxean gelditzeko asmorik. Batean zein bertzean ibiliko da, «beti badugulako kanpoan ibiltzeko aitzakiaren bat». Lehenbiziko egunean, adibidez, eguerdirako plazan izaten da: «haurren dantza saioa ikusten, tartean semea». Gero «herri-bazkarira joaten naiz, baina arratsalde berriz hurrekin bueltara ibiltzen gara». Abuztuaren 15a ere «polita» da beretzat eta Arantzako Dantza Luzea ikusita, «familia eta lagunekin Goiko Karrikan biltzen gara, giro ederrean». Arratsaldean, berriz, «mahai inguruan» egoten da, «baserrian familia guztia elkartzen garelako», eta ondoko egunetan ere «ez dugu aspertzeko tarterik izaten». Ez egunez ezta gauez ere. Egunez familia-ekin eta «gauez lagunartean afaltzea edo auzotako afarira joatea gustatzen zait».

Herriko dantzari lotuta

Ama denetik ez du Arantzako Dantza Luzea dantzatu. Baina urte azkarkiz jantzi zuri-gorria soinean ibilia da, «sei bat urterekin neska-dantza ikasten hasi» zenetik. Berezia da beretzat herriko dantza; «bes-

tetako ekitaldirik inportanteena» dela dio: «ez dago bestarik Dantza Luzerik gabe. Txistu soinua aditza eta plaza bete neska-mutil dantzan ikustea hunkigarria da».

Etetik datorkio dantzarekiko miresmena. Atautxi, ama, osaba, izeba, anaia... dantzariak izanak dira edo dira. «Ttikitatik etxean ilusio handia sumatu dut dantzaren inguruan». Are gehiago: «urte batzuek dantzatu ez bazen ere, 70eko hamarkadan herritar batzuen eskutik, gazte talde batek, tartean nire amak, dantza berreskuratu zuten». Haiek ereindakotik jaso dute ondokoek eta ez du etenik izan geroztik. Horri esker, «dantza bizirik dago eta badu etorkizuna». Horretan berak ere badu bere partea, ttikiei erakusten aritzen baita: «esperientzia polita da ondoko belaunaldiek ilusioz dantza ikasten dutela ikustea».

Azken urteotan erakusle izan bada ere, «semeak koskortzen ari direnez, agian berriz dantzan» hasiko dela aitortu digu. Ez du zehaztu noiz, baina seme zaharrena heldu den urtean Arantzako dantza ikasten hasiko dela aintzat hartuz, itzulera ez da denbora luzeko kontua izanen.

PABLOENEA

- KARTA
- MENUA
- PLATER KONBINATUAK
- BOKADILLOAK
- HANBURGESAK
- ETXKO POSTREAK

www.pabloenea.com
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

I.M. RRIKKO IGELTSERITZA

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052 ARANTZA

ESTRUKTURAK • TEILATUAK • FATXADAK • ZAHAR BERRITZE LANAK

Jauzena
ONGI PASA BESTAK!

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformat, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etiketresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

GORA AMABIRJINAK!
borzruud

IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamasetak / oparitzeko artikulua

BORDALARRIA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA
DONOSTIA • T. 943 467 244 | 943 467 444
carnessein@bordako.com

Luis Ibarra
Zurgin lanak orokorrean

636 701 204

ongi pasa bestak!

ARMAIRUAK | LEIHOAK | ATEAK | TEILATUAK | TARIMA
PARKE FLOTANTEA | TEILATUEN ZAHARBERRITZEAK

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)
ibarrazurgina@gmail.com

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

LABE ZAR

Astehenetik
ortzirakera:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Etxalarko bestak 2019

egitaraua



Abuztuak 14, asteazkena

17:00etan V. lasterketa herrikoia.
19:45ean *Euskal Presoak Euskal Herri-
rat* agerraldi isila. **20:00etan** txupinazoa,
txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga,
buruhaundiak eta erraldoiak. **21:30ean**
afaria frontoian. **00:30etik 04:00etara**
dantzaldia Oharkabe taldearen eskutik.



Abuztuak 15, ortzeguna

10:30ean argi-soinuak gaiteroekin,
buruhandi eta kankailuekin. **11:30ean**
meza. **12:30ean** herriko dantzarien saioa
txistulari eta musikariek. **Ondotik** es-
kola zaharreko estalpean hamaiketakoa
dantzari eta musikarientzat. **18:00etan**
Nafarroako herri-kirol txapelketaren jar-
dunaldia. **20:30etik 22:00etara** eta
00:00etatik 03:00etara dantzaldia Ga-
benara taldearen eskutik.

ARROSAMENA ZURGINDEGIA

ONGI PASA BESTAK!

948 635 144 | 680 260 872 | ETXALAR

ELUTSA

TABAKOAK

**BESTA ONAK
PASA ITZAZUE!**

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak



**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU !!**

Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071

info@ventanasiribarren.com

ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIaren partetik
BESTA ONAK PASA! GORA AMA BIRJINA!

haritzpe
Etxalarko okindegia

T. 618 778 328 | www.haritzpeokindegia.com



ETXALARKO EKITATIBA

T. 948 635 026



*Etxalarko Udalak
herriar eta bisitari guztiei
besta onak opa dizkizue*

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

**HERRIKO
OKINDEGIA**

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea | Arto ogia

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

ETXALAR
HOTEL-VENTA

ONGI PASA BESTAK!

- 40 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin)
- Ostatua: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko,... mota guztietako ekitaldiak

N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000 • F. 948 635 263
www.etxalar.com | info@etxalar.com

Etxalarko bestak 2019

Abuztuak 16, ortziralea

10:00etan plater-tiroketa Domisaintzan.
10:30ean argi-soinuak herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin.
11:00etatik 13:00etara eta **15:00etatik 18:00etara** haurrentzako joko parkea (txu-txu trena, puzgarri eta joko tradizionak). **13:30ean** asauttikia. **16:30etik 18:30era** eskalada haur eta helduentzat, frontoi gibelesko paretan; Miren eta Paxkuren eskutik. **17:00etan** XXVII. mus txapelketa. **18:00etan** herriko trikitilarien saioa. **19:30ean** saltoka. **19:45ean** mus txapelketako sari-banaketa. **00:00etatik 03:30era** Txingudi DJa.



Abuztuak 18, igandea

10:30ean argi-soinuak, Elutxa txaragaren eskutik buruhaundi eta kankailuekin. **12:00etan** sokatira saio berezia. **14:00etan** jubilatuen bazkaria. **Ordu berean** asaua ermitako zelaian (Elutxa txaranga lagun, denak elkarrekin abiatuko dira zelaira). **20:00etatik 23:30era** Trikidantz taldearen eskutik dantzaldia. **00:00etatik 02:00etara** Burrunba elektrotxaranga.

Herriko Ostatua-Jatetxea

Asteburuko eta eguneroko menuak, Plater konbinatuak, Errazioak, Bokatak, Pintxoak, Hanburgesak, Pizzak... **Eta eramateko janariak ere**



Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465 | www.etxalarherriko.eus

egitaraua



Abuztuak 17, larunbata

10:30ean argi-soinuak herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00etan** herriko umeen XXXIII. pilota txapelketako finalak (aurrebenjaminak, benjaminak eta infantilak). **12:00etan** Aitor Danboriena Memoriala VIII. Pilota Txapelketako finala. **13:00etan** sari-banaketa. **18:00etan** Tio Teronen Semeak. **20:00etan** Chuchin Ibañez y Los Charrros. **00:00etatik 03:00etara** dantzaldia Kenbat taldearen eskutik.



«Seme-alabek guk uste baino arinago hartuko dute bestaren lekukoa»

Ainara ARBURUA OLAGARAI
Etxalarko zinegotzia

Proposamenak harritu bazuen ere, baiezkoa erran eta dagoeneko zinegotzi lanei neurria hartzen hasia da Ainara Arburua: «hasieran eskuak burura eraman nituen baina gero pixka bat hausnartuta pentsatu nuen, 'zertaz ez?'. Azkenean norbaitek egin beharreko lan bat da».

Lehendabiziko aldia du Udalean, baina, ez herrigintzan: «Altxata eta Guraso Elkartean ibili izan naizenez, guti goiti-beheiti badakit zer den horrelako tokietan lana egitea». Gainera, «udaleko funtzionamenduan hainbat kontu hagitz desberdinak diren arren, ikasteko gogoz» dagoela dio.

Lanerako garaia

Kultur arloko ardurak hartu ditu bere gain eta lehendabiziko lana bestak antolatzea izan da: «aitzineko agintaldikoek programa osatua utzi dute, gure lana azkeneko xehetasunak lotzea izan da». Badaki aurten bestak berze modu batean bizi beharko dituela: «gazte-gaztea nintzelarik *asaua* antolatu izan nuen urte aunitzez. Herri-afarian ere aritu naiz hainbat urtetan lanean. Haurrak izan ondotik, bestan parte hartu bai baina lanean ez naiz

aritu izan. Orain da horretarako garaia». Izan ere, seme-alabek laster hartuko dute bestan euren tokia, «guk uste baino arinago hartuko dute bestaren lekukoa».

Betikoa eta berrikuntzak

Bestan gozatzeko, egitarauan ez da urteroko osagairik faltako: «berbenak, kirolak, herriko dantzariak, haurrentzako ekitaldiak... Lehengo urtean Beti Gazteko sokatiralariak etorri ziren eta aurten ere zerbait berezia eskaintzeko asmoa omen dute eta Tio Teronen semeak taldearen dantza ikuskizun berezia ere izanen da».

Herritarrak dira bestetako protagonista, lanerako eta gozatzeko: «bazter guztietan bestak izaten direnez, kanpotik jende aunitzik ez da etortzen. Batez ere herrikoak eta hurbilekoak biltzen gara eta horixe

da nire ustez herri ttiketako bestek duten xarma; herriko guztiak bestan elkartzea». Dena den, inor bestarako gosez bada, gonbidapena luzatu nahi izan du: «nahi duenak atak irekiak

dituela, ongietorriak izanen direla eta momentu polit eta eder batzuk pasatzeko aukera izanen dutela».

«Haurrak izan ondotik, bestan parte hartu bai baina lanean ez naiz aritu izan. Orain da horretarako garaia»



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

E D A R I A K

Ongi pasa bestak!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
DenobBat

kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

Ongi pasa bestak!

BEROPEL
egurrezko pellets

ECHVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

Iturgintza, gasa,
eta berokuntza pellet
eta egurrakin

Goikolanda 8A | 31760 ETXALAR
T. 657 791 507 | 948 635 256
https://pelletsbaxtanbidasoa.com

Goieko **DESIN BERA**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK**

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

txokoberri
ERAIKUNTZAK
Igeltseritza lanak orokorrean
ONGI PASA BESTAK!
DONAMARIA | 676 394 225

BENI
arraindegia
Nagusia, 17 · T. 948 450 589
31740 DONEZTEBE
ENKARGUAK
HARTZEN DITUGU!
ongi pasa bestak!

sasoi
eraikuntzak s.l.
Leku-eder, 5
31791 · SUNBILLA · (NAFARROA)
T.: 948 451 596 F.: 948 456 168
info@sasoi.es
ONGI PASA
BESTAK!

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES
ongi pasa bestak!
Etxebizitzen eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak
T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es


Donamaria - Gazteluko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

Donamariako bestak 2019

egitaraua




Abuztuak 14, asteazkena

19:00etan herri-kirolak. **20:00etan** bes-tei hasiera emateko txupinazoa botako dute, buruhaundiak, erraldoiak eta musikiariak izanen dituzte. **00:30etan** Endara DJa herriko plazan.

Abuztuak 15, ortzeguna

Goizean gaiteroak herrian barna. **11:15ean** meza. **12:15ean** dantzak, Doneztebeko dantza taldearen eskutik. **13:00etan** luntxa. **17:30ean** pilota partidak (Hodei Iriarte eta Ekai Elorza-Mikel Telletxea eta Oihan Elorza; Elizalde eta Be-roiz-Urbieta II.a eta Merino). **20:00etan** kantaldia Pancho Balbuenarekin.



Abuztuak 16, ortzirailea

10:00etan herri-krosa (izen-ematea egun berean). **13:00etan** aizkora apustua (Vicente eta Larretxea-Azurmendi eta Larrañaga). **14:30ean** paella jate autogestionatua herriko plazan. **18:00etan** gazteek antolatutako ekitaldia. **19:00etan** harrapa ezak/n gazta. **20:30ean** dantzaldia Gabenara taldearen eskutik. **21:30ean** gazte-afaria. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia, Gabenara taldeak girotua.



Abuztuak 17, larunbata

10:00etan udal tikiaren aukeraketa. **10:45ean** haurren txupinazoa alkategai tikiaren eskutik. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak eta haurrentzako jokoak. **13:30ean** haurren bazkaria. **15:30etik 18:30era** puzgarriak eta haurrentzako jokoak. **17:30ean** mus txapelketa herrikoia (bikoteko partaide batek, guttienez, herritarra izan behar du). **18:30ean** txokolate beroa. **19:00etan** Slackline (ur gaineko zinta). **19:00etan** patata tortilla eta postre lehiaketa. **21:00etan** herri-afaria. **22:00etan** Oihana eta Oihana trikitilariak.

Abuztuak 18, igandea

14:00etan herri-bazkaria, bertsolariek girotua (Aitor Mendiluze eta Jone Uria). **Bazkalondoa** komentura bisita trikitilari eta bertsolariekin. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia Trikitiens taldearen eskutik.



Zubietako festak 2019

egitaraua



Abuztuak 15, osteguna

08:00etan diana. **11:00etan** meza. **Ondotik** txistulariak eta joaldunak. Herriko erraldoiak eta buruhaundiak. **12:30ean** herriak 85 urtetik goitikoei eskainitako omenaldia. **13:00etan** aizkora apustua (Saralegi-Arria V.a). **18:00etan** Ortazar dantza taldea. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia Hauspolariek taldearekin.



Abuztuak 17, larunbata

08:00etan diana. **11:30ean** gaztetxoaren arteko pilota partida (Ane eta Mattin-Enara eta Endika). **12:00etan** Master Cup (Naroa Elizalde eta Iera Agirre-Andrea Aldaregia eta Maite Ruiz de Larramendi). **13:00etan** gazteek antolatutako herri-kirolak. **14:30ean** bertso-bazkaria (Sustrai Colina eta Unai Agirre). **17:00etan** Txorotxaranga plazan. **21:00etan** xingar jatea. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia Oharkaberen eskutik.

Abuztuak 18, igandea

08:00etan diana. **11:00etan** haurrentzako betiko joakoak eta mahai jolasak. **12:00etan** piñata. **Eguerdian** haur eta gazteen bazkari autogestionatua. **Ondotik** bingoa. **17:00etan** futbito. **17:30ean**, plater-tiroketa eta sari-banaketa. **17:30ean** haurrentzako merienda. **20:00etan** plater-tiratzailen afaria. **22:00etan** zezen-suskoa. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia Joxe Angel musikariarekin. **02:30ean** arbola botatzea.

Abuztuak 14, asteazkena

19:00etan pala txapelketako finala. **20:00etan** herriko txistulariak. **Ondotik** herriko trikitilariak. **21:30ean** zopa handiak Errandonea ostatuan. **00:00etan** arbola altxatzea eta joaldunak. **Segidan** dantzaldia Fan&Go taldearen eskutik.



Abuztuak 16, ostirala

08:00etan diana. **11:30ean** herri-krosa (aurretik izen-ematea). **12:30ean** pilota-partidak (Joanes eta Jonan - Hegoi eta Zuhaitz; eta gazteen arteko finala). **16:00etan** mus txapelketa Herriko Ostatuan. **17:00etan** patata tortilla lehiaketa plazan. **17:30ean** postre lehiaketa (etxetik ekarritakoa). **Ondotik** merienda. **18:30ean** patata tortilla eta postre lehiaketaren sari-banaketa. **19:00etan** bertso-saioa (Joanes Illarregi, Xabat Illarregi eta Julen Zelaieta. Gai-jartzailea: Iturri). **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia Gabezinen eskutik.

ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA
Taberna, jantokia eta logelak
Kale Nagusia - ZUBIETA
T. 686 230 527
zubietaaostatua@gmail.com

ONGI PASA FESTAK!

Pitti MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

MADERAS SANTESTEBAN **ONGI PASA BESTAK!**
Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak - Montaje obra
Teilaturako egiturak
Izei, haritz eta douglasezkoak edo laminatuak
Osagarriak - Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

EUSKARAZ **hizi** **hahi dut** **EZ**
Zubietako Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
zubietar eta bisitari guztiei

Arrate Estetika Zentroaren partetik



Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!!
Martin Urrutia • ORONOZ-MUGAIRI • T. 948 59 23 10

OSKORRI
denda
Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Martin Urrutia • ORONOZ-MUGAIRI • 644 958 655

MUGAIRE
ZONE AUTO
Gasolindegia
Mekanika azkarra
Gurpilak
Olio aldaketak
T. 948 599 090 • 948 599 236
N-121-B errepidea • ORONOZ-MUGAIRI
centreauto@josenea.es

BAR PIXTU
OSTATUA
ORONOZ-MUGAIRI • T. 948592472
Bertizko Jaurerriaren parean
Errazioak • Ogitarkekoak
Plater konbinatuak
Asteburuko menu berezia
Abuztuaren 5etik aitzinera 15€tik
gora kontsumituta **motxila bat opari!**

Hotelurgain
hotela • jatetxea
Asteburuan menu berezia eta karta
Amabirjina egunean menu bakarra:
Sarrerak | Bigarren platera aukeran
Postreak | Edariak eta kafea
Animatu!

Ornoz-Mugairiko bestak 2019

egitaraua



Abuztuak 14, asteazkena

11:00etan txupinazoa eta kalejira.
14:00etan haurren bazkaria. **15:00eta-
tik 20:00etara** puzgarriak eta donuts
ball haurrentzat. **17:00etan** mus txapel-
keta herrikoendako elkartean. **21:00etan**
Baztan-zopak herriko plazan. **00:00etan**
Pali DJaren eskutik dantzaldia.

Abuztuak 15, ortzeguna

10:00etan dianak. **11:00etan** meza.
12:00etan herriko haur eta gazteen
dantza emanaldia. **Ondotik** luntxa.
18:00etan herriko pala txapelketako fi-
nala. **20:00etan** mariatxiak Cazahuetes
taldearen eskutik. **22:00etan** Frantzisko
akordeoilariaren eskutik dantzaldia.

Abuztuak 16, ortzirailea

10:00etan dianak **12:00etan** partxis
eta xake lehiaketak herriko elkartean.
14:00etan gazte bazkaria **16:30ean**
Sakati elektrotxarangarekin herriari
itzulia. **19:30ean** gazte jokoak plazan.
22:00etan mozzorro eta tortilla lehiaketa.
00:00etan kontzertuak.



Abuztuak 17, larunbata

10:00etan dianak. **14:00etan** herri-bazkaria. **17:00etan** dantzaldia Joxe Angelen
eskutik. **00:00etan** dantzaldia Bidean erromeria taldearekin.

Ongi pasa bestak!
ORNOZ-MUGAIRI
948 592 063 - reservas@hotelurgain.com - www.hotelurgain.com

Amaiurko bestak 2019

egitaraua



Abuztuak 14, asteazkena

20:00etan suziriak eta ezkil-jotzea. Kuxkuxtu txaranga herrian barna. **21:00etan** Baztan-zopak, txarangak alaiturik. **01:00etan** gaupasa Gabezin taldearekin (itzulera autobusa izanen da herriz herri, 04:00etan eta 06:30etan).

Abuztuak 15, ortzeguna

10:00etatik aitzinera Baztan Bidaso-ko XVII. ardi erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna lehiaketa, artisau erakusketa, Burgete arrazako zaldien erakusketa eta iparraldeko ardi buru beltzen erakusketa, trikitilariak alaituta. **11:00etan** meza. **12:00etan** txistulariak herrian barna. **Ondotik** Gaztelu Taldearen emanaldia elizan. **13:00etan** mutil-dantzak eta ha-maiketakoa. **17:00etan** artzain zakur desfilea trikitilariak alaituta. **17:30etan** XLIV. Artzain Zakur Txapelketa, Patxi Etxeberriaren XV. Memoria. **20:00etan** Manez eta Kobreak taldearen eskutik, kantaldia.



Abuztuak 16, ortziralea

Dianak herriko gaiteroekin. **11:00etan** esku pilota finalak. **11:30etan** mus tximista Gaztelu ostatuan. **12:30etan** haurrendako jokoak herriko plazan. **14:00etan** haurren bazkaria elkartean eta gazteen bazkari autogestiona-tua. **16:00etan** haurrendako puzgarriak eta apar bes-ta. **19:00etatik 21:00etara** Burrumba elektrotxaranga herrian barna. **19:30etan** txokolate beroa. **21:00etan** muxikoak, gaita, larrain-dantzak eta mutil-dantzak. **21:30etan** gazteen afaria elkartean. **23:30etan** kontzer-tuak: Pleura eta Los Zopilotes Txirriaos. **Ondotik** martxa goitiko ostatuan.

Abuztuak 17, larunbata

12:30etan XVIII. boneta jaurtiketa. **14:00etan** zikiro ja-tea, Santxotenak alaiturik. **00:30etan** gaupasa Gabenara taldearekin (autobusa herriz herri).

**GAZTELU
OSTATUA**

Besta onak pasa!

AMAIUR • 948 453 252



T. 948 592 339 **ongi pasa bestak!**
Poli. indus. Zozaia – Errota, Pab.1 – Zozaia-Orono

ERREKA-ALDE
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak

Tfnoa: 948 592 070 • ORONOZ-MUGAIRI



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Zure jatetxeko
diseinuarekin menuak,
kartak, mahai-oihalak,
musuzapiak,
baso-azpikoak, etab.
pertsonalizatzen ditugu

kulturkari.com



AROZ-BERRI

**Ongi
pasa bestak!**



EGUR-PROZESADOREA
ORAIN HAUNDIAGO ETA AZKARRAGO

TAFJUN
www.tafjun.com

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IRURITA
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com



Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

KATTALIN JATETXEA

Ongi pasa bestak!

Lapiztegia, 6
ZUGARRAMURDI

T. 948 599 146 • 948 599 009

zeramikaren Benta

venta du carrelage

asteartetik ostirala arte :
09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

ongi pasa bestak!

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

Zugarramurdiko bestak 2019

egitaraua



Abuztuak 14, asteazkena

10:00etan txupinazoa eta eskea herri guztian barna, musikaz alaiturik. **Ondotik** pintxoak Herriko Etxean. **16:00etan** haurrendako jokoak frontoian. **18:00etan** herri-kirolak plazan. **19:30ean** Aldats elektrotzaranga plazan. **00:00etan** Ti-rri&Tery DJa plazan.



Abuztuak 15, ortzeguna

12:00etan meza. **Ondotik** herriko eta Baztango dantzariak edertuko dute plaza eta Herriko Etxeak aperitifa eskainiko du. **17:30ean** herriko pala txapelketako finala. **Ondotik** Baztango eta herriko dantzarien emanaldia plazan. **Arratsaldean** dantzaldia plazan Kiki Bordatxorekin eta arratsean Gabezin taldeak animatuko du plaza.



AKELARRE ELKARTEA



Besta zoriontsuak opa dizkizue zugarramurdiar eta bisitari guztiei



Abuztuak 16, ortziralea

09:00etan zikiroako haragia presta-tzea, Akelarrenean. **12:00etan** Gorriti eta bere animaliak. **16:00etan** haurrendako jokoak eta aparra frontoian. **17:00etan** bertso-poteoa Sarako Sarangak animaturik. **20:00etan** Joselu Anaiak taldeak girotuko du plaza.



Abuztuak 18, igandea

08:00etan zikiroa prestatzen hasiko dira lezean. **12:00etan** Baigorriko gaiteroek, Kuxkuxtu txarangak eta Irungo Atsegina txarangak animaturik aperitifa herriko ostatueta barna. **14:30ean** zikiro jatea lezean gaiteroek eta txarangak animaturik. **19:00etan** larrain-dantza eta muxikoak plazan. **Arratsaldean eta guez** Laiotz taldea.

Abuztuak 20, asteartea

16:00etan plater garbitzea Akelarrenean. **Ondotik** lanean aritu direnendako zintzur bustitzea.



ANSALAS

OSTATUA • HARATEGIA • JANARI-DENDA
T. 948 599 230 • Lapiztegia • ZUGARRAUDI



Graziana

sorginen aterpea

Zugarramurdi

Nafarroa - Navarra

www.graxiana-aterpea.com

info@graxiana-aterpea.com

675 71 14 98 - 699 93 10 72

**ONGI PASA
BESTAK**

JATETXEA-ATERPEA-NEKAZAL ETXEA

Abuztuak 17, larunbata

09:00etan plater-tiroketa Urbian. **12:00etan** meza. **12:30ean** erraldoiak eta buruhandiak eskualdeko trikitilariak alaiturik. **14:00etan** adinekoendako bazkaria Azketan. **16:30ean** zikiroko piperradaren prestatzea Akelarrenean. **18:00etan** Kuxkuxtu txarangarren eskutik, plazatik kalejiran abiatuz, ahate jokoak. **19:30ean** dantzaldia Txamukos taldearen eskutik. **21:30ean** Balentziatik ekarritako sorpresa. **Ondotik** Iratzar taldea plazan.



BERA (administraritza)

31780 Bera

IBARDIN BEHOBIA

